


OINARRIZKO EKINTZAK

Gure AURIKA INNOVATION enpresak, gainerakoek bezala oinarrizkoa den prozesu bat jarraituko dugu. Bertan, funtsezko ekintza batzuk egiteko beharra dugu gure helburuak lortzeko. Lehenik eta behin, enpresa bat kontratatuko dugu produktuen (kable eta aurikularren) piezak guretzat ekoizteko. Aipatutako hauek gure lantegietara bidaliak izango lirateke eta gure langileetako batzuek pieza horiekin beste fase bat hasiko lukete: aurikular eta kableen muntaketa eta diseinoa (koloreak, forma...). Argi dago, beste enpresari erositako pieza horiei ahalik eta erabilera eraginkorrena emango diogula, ondasun horiek funtsezkoak direlako gure proiektua aurrera eramateko. Gure lantegian dagoeneko bukatuta egongo diren produktuak paketatuko ditugu. Hori egin ostean, kontratatuko dugun garraio-zerbitzu batek, produktuak beste enpresetara bidaliko dituzte erosleek aurikular eta kableak han eros ditzaten. Online bidez erostea aukeratzen duten bezeroek gure web orrian sartu beharko lukete eta bertan produktuak eskatu; online erosteko eskuragarri dagoen beste aukera bat sare sozialak dira. Enpresaren kontu bat irekiko da eta informazio guztia eskura izango dute plataforma horretan. Kasu honetan, produktuak lantegian geratuko dira eta bertatik, kontratatuta dagoen garraio enpresaren bidez, bezeroaren etxera bidaliko lukete eskatutako produktua.




Esan bezala, denda fisikoen bidez edo gure webgunearen bitartez erosi daitezke produktuak:



Dendetan, bezeroak langileen laguntza edo arreta edozein momentutan edukiko du eta produktuei buruz aholkuak eta gomendioak emango zaizkio. Galderaren bat edukitzearen kasuan, behar duen informazio guztia eskainiko zaio.

Bezeroak online bidez erostea erabakitzen badu, aukeratzen duen produktuan, informazio guztia edukiko du eta web orrian eskuragarri izango duten gmail baten bidez kontaktatu dezake gurekin.

ORGANIGRAMA



ORDUTEGIA

- Astelehenetik- ostiralera: 08:00 - 13:00
14:00 - 17:00
- Larunbata: 8:00 - 13:00
- Larunbat arratsaldean eta igandean itxita.